Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

**FECHA** 30 de noviembre de 2017
**SERVICIO** Secretaría General del Pleno
**ASUNTO** Certificado acuerdo plenario

**SERVICIO DE INFANCIA Y FAMILIA**

Adjunto acompaño certificado del acuerdo sobre la **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL A FAVOR DE LA PRESENTACIÓN DE VITORIA-GASTEIZ A LA VIII CONVOCATORIA DEL SELLO DE RECONOCIMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ COMO CIUDAD AMIGA DE LA INFANCIA 2017-2018**, aprobado en la sesión plenaria ordinaria celebrada el 24 de noviembre de 2017.

LA SECRETARIA GENERAL DEL PLENO

YVI -002

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

*Vitoria-Gasteizko Udalbatzaren Idazkari Nagusia naizen honek*
La Secretaria General del Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

**ZIURTATZEN DUT:**
**CERTIFICA:**

Que en sesión ordinaria celebrada por el AYUNTAMIENTO PLENO el día **24 de noviembre de 2017** se aprobó, POR UNANIMIDAD DE LOS CONCEJALES PRESENTES, la **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL, A FAVOR DE LA PRESENTACIÓN DE VITORIA-GASTEIZ A LA VIII CONVOCATORIA DEL SELLO DE RECONOCIMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ COMO CIUDAD AMIGA DE LA INFANCIA 2017-2018**, que se transcribe a continuación:

***VITORIA-GASTEIZ HAURREN LAGUN DEN HIRIAREN IZAERA AITORTZEN DUEN ZIGILUA ESKURATZEKO VIII. DEIALDIRA AURKEZTEAREN ALDEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA***

*Gobernu lokalen esparruan Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean (NBE, 1989) jasotako eskubideen aplikazioa sustatzea da UNICEFen Espainiako Batzordearen Haurren lagun diren hirien programaren helburu nagusia —hitzarmen hori sinatua du Espainiak—.*

*Hauek dira haurren lagun diren hirien programaren funtsezko zutabeak: Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean oinarritutako politika publiko eraginkorrak diseinatzea (eskubideen eta ekitatearen ikuspegia), haur eta nerabeen partaidetza sustatzea (partaidetzaren ikuspegia), eta haurtzaroarekin zerikusia duten aktore guztien arteko aliantzak bultzatzea (ALIA ikuspegia).*

*2001ean jarri zen martxan Espainian Haurren lagun diren hirien programa,*

***DECLARACIÓN INSTITUCIONAL A FAVOR DE LA PRESENTACIÓN DE VITORIA-GASTEIZ A LA VIII CONVOCATORIA DEL SELLO DE RECONOCIMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ COMO CIUDAD AMIGA DE LA INFANCIA 2017-2018***

*El Programa Ciudades Amigas de la Infancia, liderado por UNICEF Comité Español, tiene como objetivo general promover la aplicación de la Convención sobre los Derechos del Niño (ONU, 1989), de la que nuestro país es signatario, en el ámbito de los Gobiernos Locales.*

*El programa Ciudades Amigas de la infancia tiene como pilares fundamentales, el diseño de políticas públicas eficaces que se basen en la Convención sobre los Derechos del Niño (enfoque de derechos y de equidad); la promoción de la participación infantil y adolescente (enfoque de participación) y el impulso de alianzas entre todos los actores relacionados con la infancia a nivel municipal (enfoque ALIA).*

*El Programa Ciudades Amigas de la Infancia se puso en marcha en España*

*eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren (FEMP), IUNDIAren —Instituto Universitario UAM-UNICEF de Necesidades y Derechos de la Infancia y la Adolescencia— eta UNICEFen Espainiako Batzordearen laguntza jaso du.*

*en el año 2001 y cuenta con el apoyo del Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad, la Federación Española de Municipios y Provincias (FEMP) y el Instituto Universitario UAM-UNICEF de Necesidades y Derechos de la Infancia y la Adolescencia (IUNDIA) y UNICEF Comité Español.*

*Haurren lagun den hiriaren zigiluaren bitartez, izaera horren aitorpena egiten die UNICEFen Espainiako Batzordeak betebehar jakin batzuk betetzen dituzten udal gobernuei —Haurren lagun den hiriaren zigilua eskuratzeko 2017-2018ko deialdiaren oinarrietan daude jasota—.*

*A través del Sello de Reconocimiento Ciudad Amiga de la Infancia, UNICEF Comité Español reconoce a los Gobiernos Locales que cumplen con los requisitos establecidos a tal efecto, que se recogen en el documento de Bases de Convocatoria Sello CAI 2017-2018.*

*Kontuan izanik Gasteizko Udalak ibilbide luzea egina duela haur eta nerabeentzako politiken garapenean, zeinetan honako mugarri hauek nabarmentzen baitira:*

*Considerando que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz tiene una larga trayectoria en el desarrollo de políticas de infancia y adolescencia entre la que destacamos los hitos siguientes:*

- *Haurtzaroaren eta familiaren lehenengo udal programa onetsi zen 1984ko urtarrilean, non jasotzen zen La Paz egoitza desintituzionalizatzea, adingabeak egoitzetan eta familietan hartzeko programa alternatiboak sortzea —eta orobat familiei zuzendutako programak—, eta instituzionalizatzea ekiditea.*

- *Aprobación en enero de 1984 del primer programa municipal de Infancia y Familia, que contemplaba la desinstitucionalización de la residencia La Paz, la creación de programas alternativos de acogida residencial y familiar de las personas menores y programas dirigidos a apoyar a las familias y evitar la institucionalización .*

- *1998an, UNICEFekin lankidetzan jarduteari ekin zion Gasteizko Udalak, Espainiak 1990ean berretsitako Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren zabalkundea bultzatzeko, eta egungo haur eta nerabeentzako partaidetza-programaren lehen urratsei ekin zien, Lagun Gutuna programa martxan jarriz, eta, gerora, sustapen-programak sortu ziren, zeinek gure hiriko gizarte-etxeen eredu integratuaren hedapenarekin bultzada hartu baitzuten, haur,*

- *Inicio en 1998 el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, de la colaboración con UNICEF para promocionar la divulgación de la Convención de los Derechos del niño, ratificada por el Estado Español en 1990, comenzando el primer esbozo del programa de Participación infantil y adolescente actual, a través de la puesta en marcha del Buzón Amigo de la Infancia y la posterior generación de programas de corte promocional que tomaron mayor impulso por la*

*nerabe eta familiei zuzendutako programa eta baliabideen sorta oso bat eskaintzen zitzaielarik eta eskaintzen zaielarik bertan herritarrei , kirol, hezkuntza, aisialdi eta denbora libreko jardueren bitartez.*

*expansión del modelo integrado de Centros Cívicos de nuestra ciudad, en los que se ofrecía y ofrece a la población toda una gama de programas y recursos dirigidos a la infancia, adolescencia y sus familias por medio de las actividades deportivas, educativos, de ocio y tiempo libre culturales y sociales.*

- *Gasteizko haurren eta familien egoerari buruzko diagnostikoa egin zen 2006an.*

- *Elaboración en 2006 de un Estudio diagnóstico de la situación de la Infancia y la Familia en Vitoria-Gasteiz.*

- *Haur eta Nerabeentzako I. Tokiko Plana (2009-2013) —izaera integraleko plana— onetsi zuen udalbatzak 2009ko apirilaren 24an, zein 2016ra arte luzatu baitzen.*

- *Aprobación el 24 de abril de 2009 en el Pleno Municipal del I Plan Local de Infancia y Adolescencia, 2009-2013, plan de carácter integral, que fue prorrogado hasta 2016.*

- *Udal Gobernuaren 2015-2019 agintaldirako Plan Estrategikoaren helburuen artean sartu zen Haur eta Nerabeentzako II. Plana martxan jartzea.*

- *Inclusión de la puesta en marcha del II Plan de infancia y Adolescencia como uno de los objetivos del Plan Estratégico del Gobierno Municipal para la legislatura 2015-2019.*

- *Aho batez onetsi zuen udalbatzak, 2015eko azaroaren 6an, Sumando - Hemen Gaude talde politikoak aurkeztutako mozioa, zeinen bitartez proposatzen baitzion udalbatzari, besteak beste, UNICEFen Haurren lagun diren hirien programara aurkezteko konpromisoa har zezala.*

- *Aprobación por unanimidad en el Pleno Municipal de 6 de noviembre de 2015 de la moción presentada por el grupo político SUMANDO-HEMEN GAUDE en la que se proponía a la Corporación entre otros temas, asumir el compromiso de presentación al programa de Ciudades Amigas de la infancia de UNICEF.*

- *2015eko azaroaren 23an, haur eta nerabeen eskubideen aldeko erakunde-adierazpena onetsi zuen udalbatzak aho batez, zeinen bitartez Udalak konpromisoa hartzen baitzuen haurren eskubideak sustatu eta babesteko politikak bultzatzeko, eta eskubide horiek bermatzeko, eta bidenabar berretsi baitzuen*

- *Aprobación por unanimidad en el Pleno Municipal del 23 de Noviembre de 2015 de una Declaración Institucional a favor de los Derechos de los niños y niñas, donde el Ayuntamiento se compromete a promover políticas de infancia orientadas hacia la promoción y protección de los niños y niñas, reconociendo y*

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Gasteiz Haurren lagun den hiria izendatzeko prozesuarekin jarraitzeko asmoa, eta familiei laguntzeko baliabideak eta prebentzio- eta sentsibilizazio-programak bultzatu eta sortzearen alde egiteko konpromisoa hartu baitzuen, dibertsitatea, erantzunkidetasuna eta kontziliazioa bereziki azpimarratuz.

garantizando sus derechos , a la vez que reitera dar continuidad al proceso de reconocimiento de Vitoria-Gasteiz como Ciudad Amiga de la infancia y se compromete a potenciar y crear recursos de apoyo a las familias y de programas de prevención y sensibilización, haciendo hincapié en la diversidad, la corresponsabilidad y la conciliación.

- Haur eta nerabeen aldeko erakunde-adierazpena onetsi zuen udalbatzak aho batez, 2016ko martxoaren 18an.
- Aprobación por unanimidad en el Pleno Municipal de 18 de marzo de 2016 de la declaración institucional a favor de la infancia y la Adolescencia.
- Haur eta Nerabeen Elkargunea sortzea onetsi zuen udalbatzak 2017ko ekainaren 23an, haur eta nerabeen partaidetza-organo egonkor gisa.
- Aprobación en el Pleno Municipal del 23 de junio de 2017 de la creación del Elkargune de infancia y Adolescencia como órgano de participación estable para la infancia y la adolescencia de Vitoria-Gasteiz.
- Haur eta nerabeen egoerari buruzko diagnostikoa landu da 2017an.
- Elaboración en 2017 del Diagnóstico de infancia y Adolescencia de Vitoria-Gasteiz.
- Gasteizko Haur eta Nerabeentzako II. Plana lantzera buru-belarri emanda gaude gaur egun, eta Haurren lagun den hiriaren ziurtagiria eskuratzeko gainerako betebeharrak lantzen dihardugu, VIII. deialdi horretara —2017-2018— aurkeztu ahal izateko.
- Dado que actualmente estamos inmersos en la elaboración del II Plan de Infancia y Adolescencia de Vitoria-Gasteiz y en la elaboración del resto de requisitos de la certificación como ciudad Amiga de la infancia a fin de poder presentarnos a la VIII Convocatoria de 2017-2018.
- Haurren lagun diren hirien programa eta Haurren lagun diren hirien izaera aitortzen duen zigilua herritar ororen mesede izango dira, eta, bereziki, haurren mesede, eta, gainera, gure udalerriak
- Considerando que el Programa Ciudades Amigas de la Infancia y el Sello de Reconocimiento Ciudad Amiga de la Infancia favorecerán los intereses de la población en general y de la infancia en particular;

YVI -002

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

www.vitoria-gasteiz.org

| | |
|---|---|
| *betetzen ditu UNICEFen Espainiako Batzordeak egindako deialdiaren oinarrietan jasotzen diren betebeharrak. Horrenbestez, udalerrian Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena zabaldu eta aplikatzen modu aktiboan laguntzeko borondatea dugunez,* | *considerando, además, que nuestro municipio cumple con los requisitos estipulados en las bases de la convocatoria abierta por UNICEF Comité Español; y manifestando nuestra voluntad de contribuir activamente a la difusión y aplicación de la Convención sobre los Derechos del Niño en nuestra localidad:* |
| *Gasteizko Udalak, honako hau erabaki du aho batez:* | *Por todo ello, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz acuerda de forma unánime:* |
| *UNICEFen Espainiako Batzordeari eskatzea Haurren lagun den hiriaren zigilua eskuratzeko tramiteei ekin diezaiela, hartara, gerora, beraren laguntza eta lankidetza izateko, gure hirian haur eta nerabeentzako politikak garatzeko, etengabe hobetzeko eta berritzeko.* | *Solicitar a UNICEF Comité Español iniciar los trámites para la obtención del Sello de Reconocimiento Ciudad Amiga de la Infancia; así como contar con su posterior apoyo y colaboración para el desarrollo, la mejora continua y la innovación de las políticas de infancia y adolescencia en nuestra localidad.* |
| *Vitoria-Gasteizen, 2017ko azaroaren 24an.* | *En Vitoria a 24 de noviembre del 2017* |

Y para que conste y surta los oportunos efectos, expido la presente certificación de orden y con el visto bueno del Presidente del Pleno, en Vitoria-Gasteiz, a treinta de noviembre de dos mil diecisiete.

V° B°
EL PRESIDENTE,

FDO.: M.V. IDOIA MARTÍNEZ PEÑALBA

SECRETARÍA GENERAL DEL PLENO
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

YVI -002